

KORONABIRUSARI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA. 2020-2021 IKASTURTEA

SARRERA

2020-2021 ikasturtearen hasierarako protokolo honen helburua antolaketaren ikuspegitik jarduteko jarraibideak ezartzea da, pandemiaren egoeraren arabera egon litezkeen balizko eszenatoki-aldaketei behar bezala erantzuteko, beti ere pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.

Horrela, kutsatzeko arriskua murrizteko eta kontrolatzeko neurriak, zein Covid-19aren kasuen edota harekin kontaktu estua izandakoen balizko agerpenari erantzuteko jarraibideak definitu ditugu. Horretarako, kontuan hartu ditugu indarrean dauden neurriak, eta ikasturtea 2020ko urrian hasteari begira, osasun-agintariek ezarritako jarraibideak.

Protokolo honetan ezarritako jarraibideak egokitu egin beharko dira osasun-agintaritzak unean-unean eman ditzakeen aholkuak jasotzeko. Kontuan hartu dugun azken erreferentzia 2020. urteko abuztuaren 19ko Osasun sailburuaren Agindua da.

Bestetik, euskaltegiak Kontingentzia Plan bat osatu du, Laneko Prebentzio eta Arriskuen Zerbitzuaren jarraibideei jarraiki egindako prebentzio- eta higiene-neurriak argi eta garbi jasotzen dituen dokumentua. Horretarako, IMQ-Prevención kanpo-zerbitzuaren laguntza izan dugu.

AGERTOKIAK

2020-2021 ikasturtearen hasierarako, eta unean uneko osasun-egoeraren arabera, euskaltegiak balizko bi agertoki aurreikusten ditu beren jarduerak garatzeko.

Gauzak horrela, Ulibarri Euskaltegiak 2020-2021 ikasturtea segurtasun- eta osasun-berme guztiekin burutu ahal izateko honako plangintza egin du:

A egoera:

Datu epidemiologikoen eta osasun-agintariek ahalbidetzen badute, ikasketa-eredua **aurrez aurrekoa** izango da. Ikasturtea ohi bezala hasiko da maila eta ordutegi guztietan, beti ere Osasun Saileko agintarien adierazpenak eta neurriak kontuan hartuz. Horretarako, ikasgelen aforoak egokitu eta higiene eta desinfekzio neurri gehigarriak hartu ditugu. Presentzialarekin batera **Google Classroom plataforma** erabiliko dugu balizko egoerei modu egokian aurre egin ahal izateko.

Lehenengo egoera honetatik beste egoera batzuetara eboluzionatzea ahalbidetzen duten neurriak prestatuak ditugu, behar izanez gero aldaketa errazteko.

B egoera:

Konfinamendua. Kasu honetan irakaskuntza **ez-presentzialaren** ereduari jarraituko genioke.

Irakaskuntza ez-presentziala

- **Google Classroom plataforma** erabiliko dugu eguneko programazioa eta materiala zehazteko. Ikasleek laguntza-bideoak izango dituzte plataformaren erabileran trebatzeko.
- Bideo-deiak egunero egingo dira MEET aplikazioa erabiliz. Bideo-deien iraupena egokituko da taldearen ezaugarrietara eta mailara.
- Bideo-deian eguneko programazioaren berri emango du irakasleak, ikasleek zer eta nola egin behar duten azalduko du, mintza saioak antolako ditu, tutoretzak egingo ditu...
- Materiala: taldean erabiltzen ari zen materiala gehi online erabiltzeko prestatutako unitateak.

HIGIENE-NEURRI OROKORRAK

Prebentziorako, behar-beharrezkoa da ikasleen eta langileen zein euskaltegiko higie-neurriak areagotzea.

Pertsona guztiek higie pertsonaleko neurri zorrotzak hartu beharko dituzte:

- Eskuak maiz garbitzea urarekin eta xaboiarekin edo soluzio hidroalkoholikoekin. Eskuak behar bezala garbitzeko, komeni da azazkalak motz izatea eta eraztun eta eskumuturrekorik ez erabiltzea.
- Saihestu begiak, sudurra eta ahoa ukitzea.
- Paperezko zapiak erabili behar dira, erabili eta botatzekoak.
- Eztul edo doministiku egitean, ondo estali ahoa eta sudurra arnas jariakinei eusteko, ukondoa tolestuta edo paperezko zapi batekin; ondoren erabilitako zapia bota dagokion edukiontzira.
- Saihestu eskuak garbitu gabe erretzea, edatea edo jatea. Ez partekatu janaririk, edaririk...
- Ez da iturrietatik zuzenean edan behar. Banakako ontziak edo behin erabiltzeko edalontziak erabili beharko dira.

2020. urteko abuztuaren 19ko Osasun sailburuaren Aginduaren 3.6.1. puntuaren arabera, **maskara derrigorrez erabili behar da euskaltegian**, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantendu. Euskaltegiak maskarak izango ditu irakasleentzat eta langileentzat. Ikasleek nork bere maskara eraman beharko dute.

Maskararen erabilera zuzena egin behar da, gaizki erabiltzeak transmisio-arrisku handiagoa ekar baitezake. Erabilitako maskara hondakin moduan kudeatu behar da.

Badira arreta berezia eskatzen duten zenbait espazio (ordenagailu gela, irakasle gela, komunak, eskailerak, etab.) eta objektu (argi-giltzak, ateetako heldulekuak, barandak, etab.), eta kasu horietan higie-neurriak areagotuko dira. Izan ere, erabiltzaileek **erabilera hasi baino lehen eta amaitzerakoan desinfektatu** egin beharko dute horretarako egokitutako produktuen bidez. Ahal dela, **ez da objekturik partekatuko**. Beharrezkoa denean, erabilera hasi baino lehen eta amaitzerakoan desinfektatu behar da.

Bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa, garbiketa-plan trinko baten bidez. Era berean, espazioen **aireztapen naturala areagotuko da** ahalik eta gehien, barruko airea berritzen laguntzeko. Ikasgelen kasuan,

eskolak hasi eta bukatu ondoren bost minutuz gutxienez, eta hiru, lau edo bost orduko ikastaroen kasuan, atsedenealdian hamabost minutuz gutxienez. Irakasle gelaren kasuan, goizean goiz, eguerdian eta arratsaldean egingo da gutxienez.

Norbera babesteko neurriak, zein instalazioak garbitu eta desinfektatzeko prebentzio-neurriak Covid-19ri aurre egiteko protokoloa eta neurri prebentiboak – *Langileentzako informazioa* izeneko dokumentuan daude jasota.

Euskaltegira etortzen diren **guztiak ondoko sintomei erreparatu behar diete**: 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usainik edo dastamenik ez izatea. Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren osasun-zentrora deitu beharko dute.

Euskaltegian gela bakoitzak gel hidroalkoholikoa izango du eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko, bai eta erabili eta botatzeko materiala baztertzeko ontzi edo paperontzi espezifiko bat ere (paperezko zapiak, kasu).

Euskaltegian beharrezko materiala dagoela ziurtatuko da: erabili eta botatzeko zapiak, maskarak, eskularruak, tapa eta pedala duten ontziak, garbitzeko eta desinfektatzeko materiala eta produktuak, soluzio hidroalkoholikoak, etab. Pantaila pertsonalak ere baditugu langileentzat.

ESKOLA PRESENTZIALAK GARATZEKO JARRAIBIDE OROKORRAK

- Sintoma argiak badituzu, isola zaitetz eta jarri harremanetan zure osasun zentroarekin.
- Maskaren erabilera derrigorrezkoa da euskaltegian.
- 1,5 metroko distantzia mantenduko da lagunen artean.
- Neurri hori kontuan hartu da gelak antolatze eta aforoak zehazteko.
- Kontaktuak eta pilaketak sahiestu behar dira. Horretarako, eskolak bost minutu beranduago hasiko dira eta bost minutu lehenago bukatuko. Garrantzitsua da puntualitatea zaintzea.
- Ikasturte hasieran, eskolen lehenengo bi egunetan, kalean bertan atendituko ditugu ikasleak eta dagokien geletara bideratu barruan pilaketak sahiesteko. Egun horietan eskolak hamar minutu lehenago bukatuko dira.
- Euskaltegiak ezarritako ibilbideak errespetatu behar dira.
- Ilogailua behar-beharrezkoa denean soilik erabiliko da eta, behar denean, pertsona bakarrak erabiliko du.
- Higiene neurriak areagotu behar dira. Gelan sartzerakoan gel hidroalkoholikoa erabili behar da eskuak garbitzeko.
- Norberak erabiltzen dituen gainazalak eta tresnak garbitu behar ditu. Erabilera hasi baino lehen eta

amaitzerakoan desinfektatu egin beharko dute horretarako egokitutako produktuen bidez.

- Ahal dela, ez da objekturik partekatuko. Beharrezkoa denean, erabilera hasi baino lehen eta amaitzerakoan desinfektatu behar da.
- Aireztapena areagotuko da eta eskola hasi eta bukatu ondoren bost minutuz gutxienez aireztatuko da. Hiru, lau edo bost orduko ikastaroen kasuan, atsedenealdian hamabost minutuz gutxienez.
- Ez da egingo urruntze- eta higiene-neurriak betetzen ez dituzten ekitaldirik edo bilerarik.
- Liburuak irakaslearen bitartez erosiko dira bulegoan pilaketak saihesteko.
- Bulegoan argitu beharreko zalantzaren bat izanez gero, gomendagarria da postaz bidaltzea bulegoan lagun gehiegi ez pilatzeko.
- Ahalik eta kontaktu estu gutxien izateko, garrantzitsua da une kritikoak saihestea, adibidez atsedenaldiak, ikasleak/irakasleak ondoko tabernetara ateratzen direnean.
- Atsedena egiteko ordutegia ondoko gelako irakaslearekin adostu beharko da pilaketak saihesteko.
- Egoera aldaketa egongo balitz, zuzendaritza-taldeak antolatuko du jarduera, horren komunikazioa eta koordinazioa, betiere osasun-agintarien jarraibideak kontuan hartuta. Zuzendaria izango da koordinatzaile nagusia.
- Bulegoan ez da kanpoko pakete pertsonalik jasoko.
- Modalitate presentzian google classroomaren bitartez jasoko da egunez eguneko eskolen jarraipena ikasturte hasieratik.

INSTALAZIOAK GARBITZEKO ETA DESINFEMATZEKO NEURRIAK

Instalazio guztiak maiz garbitu eta desinfektatuko dira, kontuan hartuta Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko Agindua, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira gainazalak garbitu eta desinfektatzeko. <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-salbuespenezko-neurrien-araudia/web01-a2korona/eu/>

- Garbiketarako, binilozko/akrilonitrilozko eskularruak erabili behar dira.
- Kutsatuta egon daitezkeen eremuak garbitzeko prozedura jarraitu behar da. Birus hauek desinfektatzaile arruntekin 5 minutuz kontaktuan egon ondoren desaktibatzen dira.
- **Arreta berezia jarriko zaie ukipen handieneko azalerei eta ekipamenduei:** ateen heldulekuak, etengailuak, mahaiak, aulkiak, zoruak, leihoak, laneko materiala, higiene-zerbitzuak, takilak... Komunen kasuan adibidez, maiztasuna bikoiztu dugu (komuna garbitu, xaboa eta paperezko zapiak

dauden konprobatu...). Horretarako, etxean erabiltzeko lixiba erabil daiteke, %0,1ean diluituta giro-tenperaturan dagoen uretan, erabiliko den egunean bertan prestatua. Lixiba erabili ezin den gainazaletan, etanola % 70ean erabili ahal izango da.

- Erabili eta botatzeko material espezifikoak duten ontziak, euskaltegian zehar banatu dira. Maiz hustuko dira eta beti garbi mantenduko dira.
- Garbitzaileak norbera babesteko ekipo egokiak erabili behar ditu, egoera bakoitzean kontuan hartzen den arrisku-mailaren arabera, eta modu seguruan bota behar ditu erabili ondoren. Ondoren, eskuak garbitu behar ditu.
- Kanpotik materiala ekartzen dutenean, higie eta desinfekzio neurriak hartuko dira horren erabilerarako.
- **Hondakinen kudeaketa egokia egingo da:** Hondakin arruntak ohiko moduan kudeatzen jarraituko da, hondakinak bereizteko protokoloak errespetatuz. Langileek eta ikasleek eskuak lehertzeko erabiltzen dituzten erabili eta botatzeko zapiak(,) tapaz babestutako eta pedalez zabaldu beharreko paperontzietara botako dira. Norberaren garbitasuneko material guztiak –maskarak, eskularruak, etab.– “errefusa” hondakinekin batera utzi behar dira. Paperontzien hustuketa maiz egingo da.

ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira euskaltegira bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere. Aipatutako egoeran dagoen langileak euskaltegiari eta lehen-mailako osasun-zentroari jakinaraziko dio telefonoz, eta euskaltegiak kanpo-prebentzio zerbitzuko osasun-zaintza jakinaren gainean jarriko du.

Gaitzaren sintomak euskaltegiko langile edo ikasleren batean agertuko balira euskaltegian bertan dagoela, pertsona isolatu behar da eta koordinatzaileari, zuzendariari, jakinarazi. Horretarako 1.1. gela erabiliko dugu. Osakidetzari jakinaraziko zaio bere osasun-zentroaren bitartez eta Osakidetzak adierazitako kontrol-neurriak hartuko dira lekualdaketa egiteko. Pertsona egon den eremua ondo aireztatu behar da eta erabilitako tresnak zein gainazalak desinfektatu behar dira. Erabili dituen norberaren garbitasunerako produktuak bota dituen edukiontzia isolatu egingo da. Zabor-poltsa hori atera eta beste zabor-poltsa batean jarri beharko da. Berau itxi ondoren, “errefusa” hondakinekin batera utziko da.

Prozesuan lagunduko dutenek maskaraz gain, eskularruak ere erabili behar dituzte. Sintomak dituen pertsonak maskara higienikoa baldin badauka, **maskara kirurgikoa** emango zaio.

Ikasle edo irakasle/langileren batek Covid-19n positibo emanez gero, etxeko berrogeialdia egin beharko du. Isolamendua sintomak hasi eta gutxienez 10 egunera mantendu beharko da, eta gutxienez 3 egunez asintomatiko egon. Osasun Sailaren SARS-Cov koronabirusa zaintzeko protokoloari jarraituko zaio (<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/>).

INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

COVID-19aren inguruko informazioa eguneratua izan behar dugu, eguneratuta dauden iturri ofizialen bidez, bai sintomei dagokienez, bai transmisioa prebenitzeko moduei dagokienez.

Erne ibili behar dugu informazioarekin; horretarako, informazioa uneoro dago eguneratuta Osasun Sailaren webgunean: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria/>

Zuzendaritza-taldeak euskaltegian ezarri diren jarduketa-protokoloei eta prebentzioko, higieneko eta osasunaren sustapeneko neurriei buruzko informazioa helarazi behar du. Covid-19ri aurre egiteko protokoloa eta neurri prebentiboak – *Langileentzako informazioa* izeneko dokumentua erabiliko da langileei bidaltzeko eta ikasleen kasuan, ikasleen argibideekin batera jasota dago. Horrez gain, ohar-informatiboak jarri dira euskaltegietan.

KOORDINAZIO TALDEA

Prebentzio jardueraren garapenerako laguntza- eta jarraipen-batzordea izendatu da, eta honako hauek eratuko dute: zuzendaria, laneko arriskuak prebenitzeko arduraduna eta ikasketa burua. **Zuzendaria izango da koordinatzaile nagusia**. Langileen ordezkariarekin harremanetan egongo da langileen parte hartzea sustatzeko eta informazioa partekatzeko.

Bere zeregin nagusia suertatu daitezkeen zalantzei erantzutea eta horiek argitzea izango da, prebentzio-neurriei, antolaketa-neurriei edota jardueren garapenari dagokienez. Horretarako, beti hartuko dira kontuan Osasun Sailak eta Laneko Prebentzio eta Arriskuen Zerbitzuak emandako irizpideak, bai eta HABEK ezarritako jarraibideak ere.

Langileren batek sintomarik adierazi badu edo positiboa izan bada, koordinazio taldeak kanpo-prebentzio zerbitzuari jakinaraziko dio horren kontaktu estuen jarraipena egin dezaten; baita ikasle bat positiboa izan bada eta bere irakaslea kontaktu estua bada, azken horren jarraipena egiteko.

Koordinazio taldeak jardueren jarraipena egingo du bereziki langileen bajen hazkundearen aurrean edo transmisio-arriskuaren igoeraren aurrean jokatzeko, beti ere langileen ordezkariarekin adostuta. Neurrien jarraipen sistematikoa egingo da, bereziki ikasturte hasieran. Horretarako, hartutako neurrien erregistroak jasoko ditugu.

Covid-19arekiko **bereziki sentiberak diren langileen kasua IMQ-Prevención kanpo prebentzio zerbitzuko osasun-zaintzak aztertuko du** eta balizko larritasuna eta ekintza plana definitu. Horretarako, kontuan hartuko da lana langilearen osasun-egoeraren berezko arriskua handitu gabe egiteko aukera ematen duten baldintzak ote dauden edo ez. 2020ko apirilaren 8an Osasun sailak honako hauek dituzten pertsonak definitu ditu Covid-19arekiko talde kaltebera gisa:

- o biriketako gaixotasun kronikoa
- o giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa
- o immunoeskasia

- o gibelego gaixotasun kroniko larria
- o minbizia tratamendu aktiboaren fasean
- o obesitate morbidoa (gorputz-masaren indizea>40)
- o haurdunaldia
- o 60 urte baino gehiago